

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 30 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Lau ariketa dauzka. Laurak egin behar dira. • Lau irakurgai dira eta guztira 34 item. • Lehenengo ariketan item bakoitzak 0,4 puntu balio du eta gainerakoetan 0,8. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez. 	50-60 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	90 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzentzat da**.

1. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

ETXEGOKI NAZIOARTEKO PRAKTIKA ON GISA EGIAZTATUA

Ezgaitasun fisikoa duten pertsonentzako apartamentu lagunduen baliabideari «Nazioarteko Praktika Onaren» zigilua eman dio *Design for All Foundation* erakundeak. Baliabide horren helburua pertsona ezgaituen ostatu-beharrei erantzutea, gizartean parte hartzeko dituzten **1** handitzea eta beren bizitza-proiektuak garatzeko bidea ematea da.

ETXEGOKI Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzu bat da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Katalogoan sartuta dagoena eta FEKOOR-ek **2** duena. Gutxitasun Fisikoa edota Organikoa duten Bizkaiko Pertsonak Koordinatzeko Federazioa da FEKOOR, gizarte-ekimeneko erakunde. Eusko Jaurilaritzak onura publikoko erakunde **3** zuen. Federazio hori ezgaitasun fisikoa edota organikoa duten pertsonen Bizkaiko hogeita bat elkarte nagusiek osatzen dute, eta lurralde historiko horretan zortzi mila bazkide inguru ditu. FEKOOR-ek ezgaitasun fisiko edota organikoa duten pertsonak gizartearen eremu guztietan sartzeko helburuarekin lan egiten du, elkarte guztien lana koordinatzeko asmoz.

ETXEGOKI foru-zerbitzuak dituen apartamentuek 2011n ireki zituzten ateak eta mendekotasun-egoeran dauden eta ezgaitasuna duten hogeita hamalau pertsonari ematen diete **4** Txurdinaga auzoan (Bilbo). Hamazortzi eta hirurogei urte bitartekoak dira. ETXEGOKI foru-zerbitzuak hamazazpi laguntzailek, bizitza independenteko teknikari batek eta koordinatzaile batek osatutako talde profesionala dauka. Langile horiek bizilagunekin batera daude eta beren bizitza-proiektuak **5** laguntzen diete. Erabiltzen duten metodologia pertsonarengan **6** plangintzan oinarritzen da. Ohiturak eta betebeharrak oinarri hartuta finkatzen dute beren eguneroko bizitza. Horrela, ikasketei, lanari, lagunei, aisialdiari eta abarrei berriro heltzeko gai izan dira eta, hala, autonomia pertsonala eta komunitatean parte hartzea sustatu da.

Eraikina ingurunea kontrolatzeko sistemez eta laguntzeko teknologia domotikoaz **7** dago. Baliabideok irisgarritasunaren, erosotasunaren edo komunikazioaren arloetan autonomia pertsonalerako funtsezkoak diren alderdiak **8** dute helburu. Han bizi diren pertsonak, beharra badute, urrutiko kontrol bat eduki dezakete etxebizitzako gailu guztiak kontrolatzeko: polipastoak (sabaiko garabiak), ohe artikulatuaren kontrola, telefono-deiak eta atezain automatikoa, laguntza eskatzeko deiak eta alarmak, telebista, argiak, pertsianak, ateen irekitze automatikoa, igogailuaren kontrola...

Teknologiaren erabilera etikoa eta teknologia bera giza laguntza pertsonalizatuarekin konbinatzea dira baliabide horren arrakastarako **9**. Baliabide horrek pertsonak aktibatu nahi ditu, komunitatean gehiago parte har dezaten eta bizi-kalitate hobea izan dezaten.

«Nazioarteko Praktika Onenak» hautaketan honako hauek **10** dira: batetik, ETXEGOKI foru-zerbitzuak giza aniztasunarekiko errespetuan oinarrituta abian jarritako gizarte-berrikuntzako eredutzat jotzen duen **11**, *Pertsona Guztientzako Diseinua* bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko tresna gisa erabiltzen duelako eta, bestetik, inklusioa, herritarren **12** eta gizarte-garapena sustatzen dituelako.

Pertsona Guztientzako Diseinua inguruneen, produktuen eta zerbitzuen gainean esku hartzea dakar, pertsona guztiak, etorkizuneko belaunaldiak barne, baldintza beretan parte hartu ahal izateko, gure gizartea eraikitzeko, haien adina, generoa, **13** eta kultura-baliabideak edozein direla ere, eta ingurunearen eta gizartearen mugak oztopo izan gabe.

Design for All Foundation irabazi-asmorik gabeko nazioarteko erakunde bat da. Haren egitekoa ezagutza sortzea eta pertsona guztientzako diseinua aplikatzea da, **14** eta bizi-kalitatearekin zerikusia daukaten arlo guztietan herritarren parte-hartzea sustatuz, gizarte bateratu eta bidezkoa **15**.

Design for All Foundation erakundeko presidentea da epaimahaiaren buru. **16**, enpresen, erakundeen zein administrazioen ordezkariak eta nazioarteko **17** duten profesionalak daude. Ebaluazio-batzordearen

iritziz, apartamentu lagunduen foru-zerbitzuak ebaluazio-irizpideak gainditu ditu; izan ere, erabiltzaileen premietarako erantzun berritzailea da, haien desioak eta diseinu- eta kudeaketa-prozesuko parte-hartzea aintzat hartzen ditu eta.

«Nazioarteko Praktika Onaren» egiaztapenak baimena ematen dio ETXEGOKIri aitortzen horren logotipo ofiziala erabiltzeko. **18**, erreferentzia gisa gehituko zaio *Design for All Foundation*-en katalogoari, eta fundazioak webgunearen eta bere nazioarteko sareen bidez zabalduko du.

<bizkaia.net>, 2015eko otsaila. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

1. a) zioak
 b) aukerak
 c) joerak
 d) trabak

2. a) aldarrikatzen
 b) igortzen
 c) kudeatzen
 d) eransten

3. a) izendatu
 b) azpisailkatu
 c) egiaztatu
 d) begiztatu

4. a) ardura
 b) premia
 c) etekin
 d) ostatu

5. a) ekoizten
 b) garatzen
 c) leuntzen
 d) izapidetzen

6. a) aldatutako
 b) ihartutako
 c) zuritutako
 d) ardaztutako

7. a) esleituta
 b) isolatuta
 c) hornituta
 d) eragotzita

8. a) hobetzea
 b) ezagutaraztea
 c) bilakatzea
 d) sakontzea

9. a) laginak
 b) gakoak
 c) eragozpenak
 d) aztarnak

10. a) artatzen
 b) lehiatzen
 c) salbuesten
 d) gailentzen

11. a) ahulezia
 b) bizipena
 c) sarbidea
 d) ikuspegia

12. a) bazkietza
 b) desjabetzea
 c) partaidetza
 d) morrontza

13. a) eleak
 b) zantzuak
 c) gaitasunak
 d) harrerak

14. a) egoskortasunarekin
 b) duintasunarekin
 c) itsutasunarekin
 d) makaltasunarekin

15. a) erdiesteko
 b) ustiatzeko
 c) suntsitzeko
 d) islatzeko

16. a) Horrez gain
 b) Hala ere
 c) Hain zuzen ere
 d) Batez beste

17. a) urritasuna
 b) abilezia
 c) ospea
 d) zaintza

18. a) Haatik
 b) Halaber
 c) Harrezkero
 d) Hala nola

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderari.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ARTZAINZTA ETA ESNE EKOIZPENA HEGO EUSKAL HERRIAN

Hego Euskal Herriko hainbat esne-ekoizleek arazoak izan ditu azken urteotan. Hala ere, askotariko iritziak daude artzaintza-sektorearen inguruan.

Felix Ajuriak panorama orokorra deskribatu digu. Ajuria aramaioarra, esne-ekoizlea, gaztagilea eta Idiazabal jatorri-deiturako lehendakariordea da. Bere esanetan, gazta saldu ezinda ibili dira urteetan, baina orain, nahiz eta krisi ekonomikoaren garaia izan, gazta oso ondo saltzen ari da. Industriak gazta gehiago eskatzen du, esne gehiago behar du. Hazkundearen faktoreak hainbat dira. Batetik, supermerkatu-kate handiak jokabidea aldatzen hasi dira, bertako produktuaren aldeko apustua eginez. Bigarrenik, denda txikiak ere joko horretan sartzen ari dira. Eta hirugarrenik, kontsumitzailea ere ulertzen ari da, kalitateari erreparatuta, Idiazabal gazta ez dela hain garestia. Alabaina, esne-ekoizleen egoerak kezkatzen du. Artzainen kostu-prezioek gora egin dute eta esnearen prezioak trabatuta jarraitzen du. Ajuriaren esanetan, «industriak Idiazabal gazta merke saldu nahi du eta ez dio artzainari nahikoa ordaintzen». Gauzak horrela, artzain-gaztagileen produkzioa % 1-2 igotzen ari den bitartean, esne-ekoizleen kopurua izugarri jaitsi da azken lauzpabost urteetan, errentagarritasun faltagatik. Desagertzeko arriskuan daude: «Industriak gazta merke saltzen badu, ez dio ganoraz ordainduko artzainari, artzainak desagertu egingo dira; beraz, ez da esnerik egongo, eta, ondorioz, Idiazabal gazta merkerik ere ez».

Zein da eredu egokia artzaintzak biziraun dezan? Mikel Alzuartek (artzain nafarra eta EHNEko kidea) hauxe dio: «Esnea eta sektorea zentralizatuko lukeen enpresa erraldoirik beharko litzateke? Ez. Bestelako ekimenak behar dira, fabrika txikiagoak; eta badira». Alzuartek ekoizpena barik, ekoizlea ardatz duen ereduaren alde egiten du. Gaitasuna dago milaka eta milaka litro esne ekoizteko modu industrialean, esate baterako, Nafarroan egiten duten bezalaxe kanpoko assaf ardi-arrazarekin. EHNEko kideak, ordea, ekoizle anitz eta ekoizpen mugatua duen sistemaren alde egiten du. Latxa ardiaren bidez

egindako ekoizpen mugatuak eredu iraunkorra bermatzen du, ingurumena kudeatzen du, bertako paisaia zaintzen du. Litro kopuru itzela helburu duen industria-ereduak ingurua kutsatzeko aukera asko du. Alzuartek oharra egin du: jatorri-deiturak (izan Idiazabal, Erronkari edo Ossau-Irati) tokian tokiko ekoizpena babesten du, beste kontu bat da ekoizpen hori artzainaren biziraupena bermatuz egingo den ala industria handiak irentsiko duen.

Ajuria bat dator Alzuarterekin ingurua babesteko proposatzen duen ekoizpen-sistemaren defentsan. Latxa ardiari eta ingurua kudeatzeko eredu horri kontsumitzaileek ez ezik, administrazioek ere aitorpena zor dietela uste du. «Ez dugu bertako arrazarekin lan egiten txapela daukalako, hemen dauzkagun baliabideekin arrazarik errentagarriena delako baizik. Europatik, diru-laguntza bidez, badator gure zereginaren onspena. Aitzitik, ez Eusko Jaurlaritzak, ez diputazioek, ezta Nafarroako Gobernuak ere ez dute horren aldeko apustu sendorik egin». Horrez gain, Ajuriaren ustez, industriaren monopolioa da kezka. Esne- eta gazta-industriak hiru ezaugarri izan beharko litzateke: dibertsifikatua, sektorearekiko leiala, eta sektorearekin batera hazi nahi duena. Zaku horretan denetarik sartzen da eta denak dira beharrezkoak: enpresa handi, txiki eta ertainak, kooperatibak, herrietako gaztandegi txikiak...

Ajuriaren ustez, saldu ezinaren estutasunik ez dagoenez, momentu egokia da erabakiak hartzeko: «Testuingurua oso interesgarria da, nire kezka da ea asmatuko dugun momentu hau baliatzen, sektoreari bultzada emateko, artzainen gainbehera geldotzeko eta gazteak erakartzeko».

IRURETA, Onintza. Argia, 2014ko urria. Egokitua

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

- 19. Besteak beste, zeri lotzen dio Ajuriak gazta-salmentaren gorakada?**
- a) Jendea kalitatea lehenesten hasi izanari, prezioari soilik erreparatu beharrean.
 - b) Krisiari aurre egiteko, industriak bertako produktuetan egindako inbertsioari.
 - c) Denda txikiek supermerkatu-kate handien prezioak berdintzeko egindako ahaleginari.
- 20. Zergatik dago kezkatuta Ajuria?**
- a) Banakako ekoizpena jaistearen ondorioz, artzain-ogibidea desagertzeaz dagoelako.
 - b) Esne gehiago ekoizten denez, artzainei litro bakoitzeko gutxiago ordaintzen dietelako.
 - c) Industriak artzainei bidegabe ordainduta nahi duelako gaztaren prezioa merkatu.
- 21. Zein da etorkizunerako irtenbidea Alzuarteren ustez?**
- a) Artzaintzaren bizirapena bermatzen duen handizkako ekoizpen-sistema.
 - b) Latxa ardia erabiltzen duten ekoizle txikien defentsa.
 - c) Tokian tokiko ekoizpena babesten duten industria handiak.
- 22. Zergatik kexatzen da Ajuria?**
- a) Ez dagoelako inolako administraziorik latxa ardia onesten duenik.
 - b) Europak ez duelako ulertzen zergatik egin nahi duten lan latxa ardiarekin.
 - c) Hurbileko administrazioek ez dutelako behar beste babesten bertako ardia.
- 23. Zer defendatzen du Ajuriak?**
- a) Ekoizle mota askotako industria.
 - b) Monopolioan oinarritutako sistema hobetua.
 - c) Beste sektore batzuetako ekoizleekin elkartzea, hazteko.
- 24. Ajuriaren ustez, zer egin behar da orain?**
- a) Gazteak sektoreraz hurbildu, salmenten gainbehera geldotzeko.
 - b) Momentua aprobetxatu eta artzaintza indartzeko erabaki egokiak hartu.
 - c) Bide zuzena aukeratu, gazta-salmentak bultzatzeko.

3. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

BALIZKO LOTSA

Neuk galdetzeko eskatzen didate alabek ia beti. Eskatu duten liburua iritsi ote den neuk galdetzeko liburuzainari. Larunbat arratsaldean zer ordutara arte geratzeko baimena eman dieten neuk galdetzeko beren lagunen gurasoei. Gustukoa duten eskumuturreko horrek zenbat balio duen neuk galdetzeko hondartza ondoko postuko saltzaileari. Adinaren gorabeherak direla eta, nesken artean ohikoagoa dela esan didate nik baino eskarmentu askoz handiagoa duten adiskide-gurasoek. Neure amari galdetu diot, lehengo edo oraingo kontua ote den jakiteko, eta hitzez hitz kontaktu dizkit sasoi horretan nik esan eta egiten nituenak, oraingo gaztetxoek berdin-berdinak. Lotsa ematen omen die. Halako lotsa. Lotsa orokortua? Horren atzean zer dagoen galdetu diot neure buruari.

Eta ikusi dut babesteko amarrua dela lotsa, beldurra den bezalaxe. Lotsak arriskuak bere sarean harrapatzetik libratu egiten gaitu, ia-ia ez dugulako arriskurik hartuko. Deseroso sentitzetik, lekuz kanpo gaudela uste izatetik urruntzen gaitu. Nabarmentzetik, aurpegia erakustetik.

Eta ikusi dut geure burua gutxiestea eragiten duen tranpa ere badela lotsa. Lotsagarri geratzeko beldurrak mendean hartzen gaituelako, eta iristen da momentua non ez garen gauza bereizteko zer den lotsa eta zer den gureganako konfiantzarik eza. Koldar egiten gaitu koldar sentitze horrek. Lotsagarri egiten gaitu lotsak. Taldean bilatzen dugu aterpea, talde baino, artalde bihurtzeraino. Amaren gonapean babesten gara eta balizko segurtasunaren magalean, goxo-goxo, bizitza eman genezake. Amaren gona txikiegi geratzean, bikotearen babesa bilatzen dute askok eskuarki. Eta bertan desitxuratzen hasten dira, lainoaren artean paisaiak ertzak galtzen dituen bezala.

Segurtasun faltsuan eroso gaude, eroso sentiarazten gaitu balizko babesak. Ez dakigu, alta, babesetik desagertzera pauso bat baino ez dagoela: ez ausartzetik ez bizitzera dagoen distantzia bera.

KALTZADA, Pilar. *Bilbao*, 2014ko abendua. Egokitua

3. ariketa. Aukeratu erantzuna

25. Zer egoera aurkezten du Pili Kaltzadak artikulu honetan?

- a) Bere amarengandik ikasitako lehengo eta oraingo kontuak.
- b) Belaunaldi guztietako neskatxek omen duten lotsa-arazoa.
- c) Konpontzeko eskarmentu handia eskatzen duen auzia.

26. Zer alde on ikusten dio lotsari Kaltzadak?

- a) Deseroso sentiarazi ahal bagaitu ere, gauza txarretatik babesten gaituela.
- b) Beldurra baino gomendagarriagoa dela.
- c) Arriskutik urrun gaitzakeela.

27. Zergatik dauka tranpatzat lotsa?

- a) Norberarenganako ziurtasun falta ezkututzen duelako.
- b) Lagun-taldea gobernatzeko beharrezana sorrarazten duelako.
- c) Bikotekidearen babesa izan ezean, norberaren itxura zaintzea eragozten duelako.

28. Kaltzadaren ustez, zer da lotsak ekar dezakeen ondoriorik txarrenetarikoa?

- a) Norbera eroso sentitzea faltsukeriatan ibiltzean.
- b) Lotsaren erruz, bizitzaz ez gozatzea.
- c) Lotsatia dena inoiz ez animatzea lotsa desagerrarazteko pausoa ematera.

4. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu testu zatia dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (29, 30, 31...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

NANOTEKNOLOGIA ETA ARRISKUA

Ekonomiaren giltzarritzat ditugu zientzia-tekologiaren berrikuntzak. Lehiakorrak izan eta lanpostuak sortzeko ezinbestekoak dira. Berrikuntzarako bidean, nanoteknologiari berebiziko garrantzia esleitzen diote sektore pribatuak zein publikoak.

Baina zer da nanoteknologia? Hitz gutxitan, maila atomikoan eta molekularrean aritzen diren zientzia eta teknologia. **29**

Nanoteknologia ez da, hortaz, gailu espezifiko bat, mundua ezagutu eta eraldatzeko beste modu bat baizik, nanoeskalan aritzen dena. **30** Horregatik da hain garrantzitsua nanoteknologia ekonomikoki, aurkikuntza bakar bat sektore ugarian aplikatu daitekeelako. Testuinguru horretan, merkatu-analisten nanoteknologiari lotutako merkatua 750.000 milioi euro eta bi bilioi euro bitartekoa dela diote eta hamar milioi lanpostu iragartzen dituzte datozen urteetarako.

Nanoteknologiak badu, ordea, hain samurra ez den beste aurpegi bat: ingurumen- eta osasun-arrisku berriak eragiteko izan lezakeen ahalmena. Materialak maila atomikoan eta molekularrean manipulatzaren ondorioz, material horien portaera eraldatu eta hobetu egiten da, eroankortasuna, arintasuna, erresistentzia eta antzeko ezaugarriak dagokienez. Baina, era berean, manipulazio horrek maila oso txiki horietan bakarrik izaten diren propietate fisiko-estruturalei lotutako arriskuak eragin ditzake. **31**

Berezitasun horiek izan arren, jada nanoteknologiaren oinarritutako 1.300 kontsumo-produktu baino gehiago merkaturatu dira munduan zehar, produktu horien segurtasuna bermatuko lukeen nanoteknologiaren gaineko araudi berezirik aplikatu gabe. Horren harira, Europar Batasuneko botere exekutiboak, Europako Batzordeak, ondorioztatu zuen nanoteknologia garatu aurreko esparru erregulatzailerak beharrezkoa zela

«nanomaterialen osasun-, lan- eta ingurumen-arrisku potentzialak arautzeko». Hori 2008ko *Regulatory Aspects of Nanomaterials* txostenean jaso zuen.

Hala ere, Europar Batasuneko beste instituzio batek, Europako Parlamentuak, ebazpen bat onartu zuen 2009ko apirilean, Batzordearen txostenaren ondorio nagusi horrekiko oso kritikoa. **32** Oraindik argitaratu gabe dago azterketa hori.

Bien bitartean, eta Europako Parlamentuaren bultzada legegileari esker, azken urteotan Europar Batasunean nanoteknologiari aplikatutako segurtasun-neurri espezifikoak barne hartzen dituzten araudiak onartu dira, munduan lehen aldiz (herrialdeetako gobernuak aintzat hartzen badira, bederen). Haien arteko esanguratsuenak da, arauen espezializazioa eta bariatatea kontuan hartzen baditugu, 2009ko azaroan onartutako produktu kosmetikoen gaineko 1223/2009 Araudia. Araudi horretan, adibidez, nanomaterialen arriskuen ebaluazio zientifiko berezia eskatzen da eta osagaitzat nanomaterialak dituzten produktu kosmetiko guztiak etiketatzerak behartzen da.

33 Beraz, Europak bidea ireki dio nanoteknologiaren segurtasunaren arautze espezifikoari. **34** Azken buruan, nekazaritza transgenikoak Europan izan duen porrotak agerian utzi duen moduan, gizarteak segurtasuna aintzat hartzen duen garapen tekno-industrial arduratsu bat nahi du.

RODRIGUEZ, Hannot. *Elhuyar*, 2012ko apirila. Egokitua

4. ariketa. Txertatu testu zatia

- A.** Ebazpen horretan Europako Parlamentuak Batzordeari eskatu zion indarrean zegoen araudia 2011ko apirilerako berriro aztertzeko, araudiak nanoteknologiaren arriskuei heltzeko izango zukeen egokitasuna berriro ere zehatz zezan.
- B.** Europar Batasunean, enpresa-interesez harago kontsumitzaileen eta ingurumenaren interesak hobekien ordezkatzan dituen instituzioak, hots, Europako Parlamentuak hartu du bere gain egiteko hori.
- C.** Hori dela eta, bide berri asko irekitzen dituen ikerketa-eremu bat izanik, nanoteknologiak oinarri teknologikoa duten industria-sektore guztietan sakoneko eragina izango luke (medikuntzan, energian, informazioaren teknologietan, eta abar).
- D.** Hortaz, nanoteknologia XXI. mendeko hazkunde ekonomikoaren eragileetako bat izango da, zalantza-izpirik gabe, baita gizateriaren etorkizuna baldintzatuko duen iraunkortasunaren oinarrietako bat ere.
- E.** Maila oso txiki horietan ezagutu eta manipula daitekeenaz arduratzen den jarduera da; hots, eskuarki nanoteknologiak 100 nanometro baino txikiagoak diren egiturekin lan egiten du.
- F.** Izan ere, nanomaterialek giza gorputzean zein beste organismo bizidun batzuetan sartzeko, eta organoak, ehunak eta zelulak zeharkatzeko erraztasun handiagoa dute, hain txikiak ez diren partikulekin alderatuta.
- G.** Gainera, Europar Batasuneko merkatuan nanomaterialak osagaitzat dituen produktu bat saltzeko asmoa duenari, merkaturatu baino sei hilabete lehenago Europako Batzordeari produktuaren segurtasunari buruzko informazioa helarazi beharra ezartzen dio.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	29	30	31	32	33	34
Testu zatiak						

Soberakoa	
-----------	--

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez 180 hitz idatzi behar dituzu.

- GAIA:** Berdintasun Arloko teknikaria zara. Zuen udalerrian hitzaldi, mahai-inguru eta filmen ziklo bat antolatu du herriko Zinezaleen Elkarteak. Bertako hizlari, zuzendari eta parte-hartzaile guztiak gizonezkoak izan dira.
- Idatzi gutuna elkarteko arduradunari. Agertu kexa emakumezkoak diskriminatu direlako, azaldu Udalaren jarrera, eta eskaini elkarlana eta laguntza.

2. ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

EGOERA: Azken bolada honetan, hedabideetan gure gazteei buruzko zenbait datu eta iritzi irakurri eta entzun dituzu. Zuk gaztez inguraturik lan egiten duzu eta haien beharrak, interesak eta kezkek hurbiletik ezagutzen dituzu.

Herriko aldizkarian zure ikuspuntua azaltzea erabaki duzu.

GAIA: NOLAKOAK DIRA GURE GAZTEAK?

Gazteek bizitza oso eroso dute; denetarik ematen dieten familietan bizi dira. Onartu beharko dute beste herri batzuetara joan beharko dutela bizitzera eta lan egitera, eta ezinezkoa izango dela etxean egotea bizitza osoan, gurasoekin.



Euskal Autonomia Erkidegoko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 14k ez du lanik egiten, ezta ikasten ere.

Lehenago gazteak beste modu batekoak zirela entzuteak amorrarazi egiten ditu gazte asko.

EAEko gazteen % 40 langabezia dago eta lanean daudenen % 70ek behin-behineko kontratua du, eta 890 euroko batez besteko soldata.

- Ados zaude hedabideetan gazteez entzuten/irakurtzen dituzunekin?
- Nolakoa da inguruan dituzun gazteen egoera?
- Oso desberdinak dira lehenago gazteak eta gaur egungoak?
- Nola konpon daitezke dituzten arazoak?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** hutsuneak bete.
- Irakurgaia: «ETXEGOKI nazioarteko praktika on gisa egiaztatua»

1.	B	2.	C	3.	A
4.	D	5.	B	6.	D
7.	C	8.	A	9.	B
10.	D	11.	D	12.	C
13.	C	14.	B	15.	A
16.	A	17.	C	18.	B

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- Irakurgaia: «Artzaintza eta esne-ekoizpena Hego Euskal Herrian »

19.	A	20.	C	21.	B
22.	C	23.	A	24.	B

- **3. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- Irakurgaia: «Balizko lotsa»

25.	B	26.	C	27.	A
28.	B				

- **4. ariketa:** sartu testu zatia dagokion hutsunean.
- Irakurgaia: «Nanoteknologia eta arriskua»

Hutsuneak	29.	30.	31.	32.	33.	34.
Testu zatiak	E	C	F	A	G	B

Soberakoa	D
-----------	---